



Alkandora  
Camisa



Mahuka laburreko  
kamiseta  
Camiseta de manga corta



Bainujantzia  
Traje de baño




Jertsea  
Jersey

Pijama




Praka bakeroak  
Pantalones vaqueros

# Arropa-dendan ere euskaraz



Txanoa  
Gorro



Gona  
Falda




Kamiseta  
tiranteduna  
Camiseta de tirantes



Oinetakoak  
Zapatos



Mantala  
Bata



Zira eta eskularruak  
Impermeable y guantes



Soinekoa  
Vestido



Prakak  
Pantalón

# Euskara, aukera paregabea.

El euskera es una buena oportunidad.

Betaurrekoak  
Gafas



## “Nik Baditut” Abestia

Nik baditut zapatilak emaztegaiak emanak. Zapatilak txarol finak, ebila eta kordonak, emaztegaiak emanak.

Nik baditut galtzetinak emaztegaiak emanak. Galtzetinak hari finak, zapatilak txarol finak, ebila eta kordonak, emaztegaiak emanak.

Nik baditut pantalonak emaztegaiak emanak. Pantalonak oihal finak, galtzetinak hari finak, zapatilak txarol finak, ebila eta kordonak, emaztegaiak emanak.

Nik badaukat gerrikoa...

Nik baditut alkandorak...

Nik baditut txalekuak emaztegaiak emanak. Txalekuak korte finak, alkandorak tela finak, gerrikoa seda fina, pantalonak oihal finak, galtzetinak hari finak, zapatilak txarol finak, ebila eta kordonak, emaztegaiak emanak.

**Oskorri**  
Doktor Do Re Mi eta Benedizebra



Galtzerdiak  
Calcetines

### INFORMAZIOA

**Hizkuntza aholkularitza Getxoko saltokiei**  
Asesoría lingüística al comercio getxotarra  
94 415 22 52 gehi@getxo.net

**Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzua**  
Servicio de Euskera. Ayuntamiento de Getxo  
94 466 00 10/11 euskara.zerbitzua@getxo.net  
www.getxo.net



Eskularruak  
Guantes

## Seme-alabekin ere euskaraz

**Gurasoa:** Egun on!

**Umea:** Egun on!

**G:** Jaikitzeke ordua da jada, eskolara joan behar duzu eta. Zer jantziko duzu gaur?

**U:** Atzo erositako gona estreinatu gura dut.

**G:** Ondo da; baina, lehenengo, pijama erantzi behar duzu. Eta soinean, zer jantziko duzu, kamiseta tiranteduna ala mahuka laburreko kamiseta?

**U:** Tiranteduna.

**G:** Ados. Baina, badaezpada, jertsea ere eroan ezazu, gaur hoztu egingo du eta.

**U:** Bai? Orduan hanketan ere zerbait jantzi beharko dut.

**G:** Bada, galtzak aterako dizkizut; eta, sandaliak beharrean, zapatak eroango dituzu, bai?

**U:** Bai.

**G:** Eta gogoratu bizkar-zorroan eskolarako mantala sartu behar duzula!

**U:** Egia da!

**G:** Gaur eguzkia irten da, eta berotu egiten du; hondartzara joango al gara?

**U:** Ederto!

**G:** Orduan, bainujantzia hartuko dugu.

**U:** Ni, bitartean, txankleten bila joango naiz.

**G:** Ondo da. Txanoa ere jantzi beharko dugu, eguzkiak gogor joko duelako.

**U:** Bainujantzia jantzi dut jada. Bagoaz?

**G:** Zaude apur batean. Ezin gara etxetik horrela irten! Elastikoa ere jantzi ezazu, hondartzara heldu arte.


**U:** Ados.

## Hiztegia

Berokia	Abrigo
Txalekoa	Chaleco
Txandala	Chándal
Kirol-jertsea	Sudadera
Elastikoa	Camiseta
Tapauka	Bufanda
Galtzerdia	Calcetín
Galtzak	Medias
Sandaliak	Sandalias
Botak	Botas
Barruko arropa	Ropa interior
Kirol-oinetakoak	Playeras
Txankletak	Chanclas
Aterkia / Euritakoa	Paraguas



Botak  
Botas



Barruko arropa  
Ropa interior

Barruko arropa  
Ropa interior

## Euskaraz atseginez En euskera amablemente

**Gura badozu, euskaraz ere bai**  
Si quieres, también en euskera.

**Astiro, mesedez, ikasten ari naiz eta**

Despacio, por favor, estoy aprendiendo.

**Euskaraz bai, baina astiro, mesedez**  
En euskera sí, pero despacio, por favor.

## Arropa-dendan ere euskaraz

**Dendaria:** Kaixo!

**Gurasoa:** Kaixo! Umearentzako neguko arropa erostera nator. Zer daukazue?

**D:** Momentu honetan, zira eta eskularruak dira gehien saltzen gabiltzana.

**G:** Bai, horiek ezinbestekoak ditu hotzik ez izateko Baina, agian, burua eta eztarria estaltzeko zerbait gehiago beharko luke.

**D:** Bai, arrazoi duzu. Horretarako, txanoa eta tapauka gomendatzen dizkizut.

**G:** Erakutsiko didazu nolakoak diren, mesedez?

**D:** Jakina! Zenbat urte ditu zure umeak? Hala, berarentzat aproposenak diren arropak erakutsiko dizkizut.

**G:** Sei urte dauzka.

**D:** Ondo da. Orduan, hauexek dira bere neurrikoak.

**G:** Bada, uste dut lau arropak erosiko ditudala. Kobratuko didazu, mesedez?

**D:** Bai, oraintxe bertan.

Eskatu eta  
erosi euskaraz